


IKASTETXEA	C.P OTSAGABIA		
IZENBURUA	PRODUKTU EKOLOGIKOAK	MAILA	3
IRAKASLEA	BEGOÑA URBE	IKASGAIA	NATUR ZIENTZIAK


DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

2. ATAZA

TESTUA

ekoizpen sasoiak





Produktua	Produktuaren izena	Produktuaren zenbakia			
Acuicultura	Arain-haztegia	44813342			
	Apicultura	Erteaintza	44813343		
		Aromáticas, medicinales y tintóreas	Usain-belarrak, sendabelarrak, eta tindagai-lantarak	44813344	
			Avicultura y huevos	Hegazti-hazkuntza eta arrautzak	44813345
				Bosque y recolección silvestre	Basoa eta basa-bilketak
Caprino carne	Abuntz-haztegia	44813347			
	Cereales, leguminosas y otros granos	Laborerak, lekadunak, eta bestelako aleak	44813348		
Equino		Zaldia	44813349		
	Frutales	Fruta-arbolak	44813350		
Frutos secos		Frutu lehorrak	44813351		
	Hortalizak	Barazkiak	44813352		
Olivar		Olibadia	44813353		
	Otras producciones vegetales	Gaiterak landare ekiztzenak	44813354		
Ovino carne		Ardi-haztegia	44813355		
	Ovino leche	Ardi-esnea	44813356		
Pastos, praderas y forrajes		Larre, belardi eta bazkak	44813357		
	Semillas y viveros	Haziak eta mintegiak	44813358		
Vacuno carne		Begi-haztegia	44813359		
	Vacuno leche	Begi-esnea	44813360		
Viña		Mahastia	44813361		

<b>JATORRIA</b>	
EGILEA	Nafarroako nekazaritza ekologikoaren kontseilua
IZENBURUA	Elikagai Ekologikoak Nafarroan
ARGITALETXEA/Webgunea	CPAEN
URTEA	
ORRIALDEA (K)	
ISBN	
<b>TESTU-MOTA</b>	
OINARRIA	Inprimakia
FORMATOA	Etena
MOTA	Azalpena
ERABILERA	publikoa

<b>JARDUERAK</b>
<b>1. INFORMAZIOA BILATU EDO BERRESKURATU</b>
<b>1.1 Galdera</b>
Zer erakusten du testuan agertzen den irudi eliptikoak?
<b>1.1 Erantzuna</b>
Urteko sasoi bakoitzean zein barazki edo fruitu aurki daitezkeen erakusten du.
<b>1.1 OHARRAK</b>
Testua behar bezala lantzeko, kolorez ematea komeni da. Eta tamaina handian (A3n, alegia)
<b>1.2 Galdera</b>
Zer nolako ekoizpena dago Zaraitzu bailaran (Nabaskoze eta Itzalzu artean)?
<b>1.2 Erantzuna</b>
Ahuntz-haragia, zaldia, ardi-haragia, larre, belardi eta bazkak, laboreak, lekadunak eta gainerako aleak, barazkiak, haziak eta mintegiak.
<b>1.2 OHARRAK</b>
Ikasleek ekoizleen mapa begiratu beharko dute eta hori erabiliz, ikusi beharko dute zer ikur agertzen den eta ikur bakoitzak zer esanahi duen. Honela adierazita, 3.ekoa edo 4.ekoa. Hau da, Zaraitzu bailarak zenbat herri hartzen duen ikusi eta, ondoren, dauden ikurrak aztertu.
<b>1.3 Galdera</b>
Noiz ekoizten dira zainzuriak?
<b>1.3 Erantzuna</b>
Apirilean eta maiatzean.
<b>1.3 OHARRAK</b>
<b>2. ULERMEN OROKORRA</b>
<b>2.1 Galdera</b>
Hautatu testu honentzako beste izenburu bat.
<b>2.1 Erantzuna</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fruta eta barazki ekologikoak, hilabetez hilabete</li> <li>• Elikagai ekologikoen urteroko gurpila</li> <li>• Noiz kontsumitu produktu ekologikoak</li> </ul>
<b>2.2 Galdera</b>
Zein da testu honen helburua?
<b>2.2 Erantzuna</b>
Landare-elikagaiak Nafarroan zer sasoiotan eta non ekoizten diren ezagutzea.
<b>2.3 Galdera</b>

Noiz ekoizten dira elikagai ekologikoak?
<b>2.3 Erantzuna</b>
Elikagai ekologikoak soilik bere garaian ekoizten dira, haien sasoi-ziklo naturala errespetatuz.
<b>3. INTERPRETAZIOA- INFERENTZIAK</b>
<b>3.1 Galdera</b>
Pirinioetako bailaretan, ba al dago ardo produkzioerik?
<b>3.1 Erantzuna</b>
Ez, ez dago.
<b>3.1 OHARRAK</b>
Ikasleek begiratu beharko dute “Ekoizleen mapa” eta ikusi ea mahastien ikurra agertzen den. Inferentzia izango da, mahatsak badaude, ardoa ekoiztuko dute. Ikurra agertzen ez denez, ez dago ardo-produkzioerik.
<b>3.2 Galdera</b>
Zer da “ES-NA-AE”? Aukeratu hurrengo erantzunen artean: a) Estudios Navarros Ambientales Ecológicos b) Estudios Navarros sobre Agricultura Ecológica c) España- Navarra- Agricultura Ecológica
<b>3.2 Erantzuna</b>
c) España- Navarra- Agricultura Ecológica
<b>3.3 Galdera</b>
Grafikoari begiratuta, kolore gehien duen entsalada bat prestatu beharko bazenu, zer hilabetetan egingo zenuke?
<b>3.3 Erantzuna</b>
Irailan, barazki eta fruta kopuru gehiago eta kolore desberdinetakoa dagoen hilabetea delako.
<b>3.3 OHARRA</b>
Ikasleek inferitu beharko dute frutaren kolorea, inon ez baita agertzen.
<b>4. EDUKIAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA BALORAZIOA</b>
<b>4.1 Galdera</b>
Aurtengo ikasbidaia dela eta, ardo ekologikoa erosi nahi dugu gurasoei saltzeko. Zonaldeko ekoizleei deitu eta eskatu gutxienez hiru bodegatan presupuestoa. Zer pauso eman beharko zenituzke?
<b>4.1 Erantzuna</b>
1. “Ekoizleen mapan” begiratu beharko nuke non ekoizten den ardoa, Otsagabiatik gertuen dauden bodegetan. 2. “Ekoizleen zerrendan”, aurkitu herrien izenak. 3. Herri bakoitzean, begiratu zein den ardo ekoizlea eta apuntatu telefona.  Kontutan hartuz Otsagabian gaudela, gertuenak daudenak dira:

- **Usún: Agraria Eslava Serrano; telefonoa: 948 398053**
- **Lumbier (Irunberri): Bodegas Aristu 948 398098**
- **Aibar: Bodega Mendiko S.L. 948 393185**

#### **4.2 Galdera**

Konparatu Otsagabian eta Tuteran dagoen produkzioa eta azaldu zergatik uste duzun batean bestean baino produktu gehiago ekoizten direla.

#### **4.2 Erantzuna**

Produkzioa askoz aberatsagoa da Tuteran, alde batetik, klima egokiagoa delako eta bestetik, luraren konposizioa ere aberatsagoa delako. Otsagabia altitude handiagoan dago, eta klima aldetik, neguak oso hotzak eta gogorrak dira. Prezipitazioak, elur moduan izaten dira. Tuteran, berriz, eguzkitsuagoa da.

#### **4.2 OHARRAK**

### **5. FORMAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA EBALUAZIOA**

#### **5.1 Galdera**

Zertarako nabarmentzen du testuak “EKOIZLEEN MAPA” letra maiuskulaz?

#### **5.1 Erantzuna**

Garrantzia emateko.

#### **5.2 Galdera**

Elikagaietan, zertarako erabiltzen dira kolore desberdinak?

#### **5.2 Erantzuna**

Elikagai mota desberdinak desberdintzeko. Berdeak, frutak dira; gorriak, laranja eta horiak, berriz, barazkiak.